

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

## Burgesiaren diktadura

**G**azte nintzela, jada aspaldi, jendar-tearen antolakuntzari buruzko lehenengo irakurketak eta eztabaidak egiten hasi ginenean, gogoratzen dut Xabier Arzalluz, orduan PNVko buru, zera esaten, ezkerreko ideiak “kanpotik” etorritakoak zirela, eta orduko ETAre inguruan geundenak autoritarioak ginela, proletalgoaren diktadura ezarri nahi genuelako, hain zuzen ere.

Jeltzalearen lehenengo baieztapenak harritu egiten ninduen; ez nion zentzu gehiegi hartzen, ez bazen pentsatzeko, agian, Arzalluzek uste izango zukeela kapitalismoa Euskal Herrian sortua zela, jainkoa eta lege zaharrek batera, paleolitiko garaian edo. Baina, batez ere bigarren esaldiak mintzen ninduen bereziki.

Jelburuak esandakoak zera adierazten zuen, edota ez zekiela marxismoari buruz, eskuineko demokristaua baitzen, eta kapitalismoaren aldeko sutsua, beraz; edo nahita botataka esaldia zela, euskal jendeak diktadura hitzari zion beldurra erabiliz, ezkertzaileen aurka egiteko.

30 urte eta gero, lehen munduan, mundu osoko “Jeltzaleek” bultzatutako kapitalismo horren krisia bizitzea egokitu zaigunean, konturatzen hasi gara, berriz ere, hemen nork agintzen duen benetan. Horregatik gogora etorri zaizkit hitz haiek.

Espainiako Estatuan sozialdemokratek –beti eskuinaren lan zikina egitea egokitzen



DANI BLANCO

baitzaie– hartu dituzten erabakiak ikusi eta gero, ongizate estatuaren ezabapena sinatu dutenean, gogoratu dugu, hemen European ere, fatxada demokratiko homologatuen azpian, ordenak ematen –diktatzen– ditue-na, garbiki, burgesia dela.

Kapitalak agintzen du, eta Markek *Manifestuan* zioen bezala, “Gobernu modernoan

burgese klasearen arazo orokorren administrazio-batzordea besterik ez dela” argi agertzen ari zaigu, gu gerrikoak estutzen ari garen bitartean, korporazio handiek milaka milioika euroko etekinak baitaузkate, eta zerbitzu publikoak murriztearekin batera, pribatuak hazten ikusten baititugu.

Proletalgoaren diktadurak esan nahi zuena, zehazki, zera zen: aginduak, ekonomia eremuko aginduak, langileen esku geldituko zirela, burgesiaren esku egon beharrean. Eta irizpide bezala, jabego pribatua publikoaren menpe geldituko zela, denborarekin desagertzen joan arte.

Eta zer esango dizuet bada, nik aukeratzekotan, nahiago dut langile jendearen diktadura, neu barne nagoelako, gehiengoarekin, orain arteko burgesiaren –elite aberats, zapaltzaile, minoritarioaren– diktadura baino. Haren gainetik, egitura politiko demokratikoa, parte-hartzailea, eta herritarrengandik hurbilagoa ere antolatze-ko aukera izango dugu, orduan. Zeren beldur? ■

Nik aukeratzekotan, nahiago dut langile jendearen diktadura, neu barne nagoelako, gehiengoarekin, orain arteko burgesiaren –elite aberats, zapaltzaile, minoritarioaren– diktadura baino



Abuztuaren 31, 17 (Alde Zaharra)  
Donostia  
☎ 943 420 434  
[www.restauranteurbano.com](http://www.restauranteurbano.com)

